

noaua

**Zumarten
matrikulatzeko
azken egunak**


Sagardo Eguna, iruditan

**Larunbat honetan,
Erraustegiaren Aurkako
Eguna Zubietan**

Miriam Arrillaga Beloki pilotaria

**“Amets bat izango litzateke
munduko txapelketan jokatzeari”**

Lasartetik irteera
Noaoaren laguntzarekin



POLONIA

Abuztuaren 29tik
irailak 5 arte



DIGITOM Taldeko agentzia

943 373 613

info@noaua.eus

www.noaua.eus

Hipodromo Etorbidea 10, 2016 Lasarte - Oria



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

AURTEN HILERRI ZAHARRAREN ITXIERA:

•GORPUZKI ETA HILOTZ-HONDARRAK ZUEN KABUZ
KUDEATU NAHI BADITUZUE GUZTIAZ ARDURATZEN GARA:

- HILERRI ZAHARRETIK ATERA ETA ERRAUSTEAZ
- HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA ERAMATEAZ

ESKAERA EGITEKO AZKEN EGUNA, EKAINAK 16!

(Izapide guztiak egiten ditugu: Osasun Saileko baimenak, Udala, Erregistro Zibila, osasun-garraioa erraustu-labera edo beste hilerri batera...)

OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA GARA (ERREG ZB: F18)

943 36 21 63 (24H)

AURREKONTU ETA INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE



• BEILATOKI GUZTIAK • ERRAUSKETAK

• EDOZEIN ASEGURU IZANDA (**OCASO, SANTALUCIA...**) HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

Noaua! App

Herriko berriak beti soinean



Albisteak, agenda eta askoz
gehiago Noaua! app berrian.
Deskargatu doan eta jaso herriko
azken berriak mugikorrean.

Eskuratzeko:

App Store

Google play



www.noaua.eus

Albiste irudituan

Eguneko Zentroak plaza gehiago izateko eskaera

Adineko herritarrak biltzen dituen Puntapax Eguneko Zentroko erabiltzaileen kopurua gorantz doa. Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez, hilabete honetan jada sei lagun gehiago biltzen dira Kalezarko gunean. “Sendia’ programaren bitartez, Eguneko Zentroan plaza izateko eskaera egina duten sei pertsonak aukera izango dute hilabetean bi asteburu eta jai egunetan joateko”, adierazi dute. Berrikuntza gehiago ere izan da. “Eguneko Zentrorantz bertaratzeko furgoneta berri bat baitago. Auto berria DYAk jarri du”, Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez.

Une honetan, 18 lagun biltzen ditu Eguneko Zentroak astelehenetik ostiralera, eta sei asteburuetan. Larunbat, igande eta jai egunetako plaza kopurua igotzea



Udaletik berri eman dutenez, hilabete honetan jada sei lagun gehiago biltzen dira Kalezarreko gunean.

eskatu dio Usurbilgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari, “asteburuetan beste sei

plaza gehiago izateko, eta momentu honetan erantzunaren zain dago”.

Laburrean

Greba Aginaga eta Zubietako Eskoletan

Maiatzaren 16an egin bezala, astearte honetan ere unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan deitua zegoen greba deialdiarekin bat egin zuten Aginagan eta Zubietan. Erabatekoa izan zen jarraipena.

Aginagako Atarialde elkarteko batzarra

Maiatzaren 27an bazkideen urteko batzar nagusia Aginagako Atarialde Elkartearen eguerdiko 12:00etan. Ondoren bazkaria. Soziedadean bertan jarrita dauden zerrendetan izen ematea eskatzen dute.

“Hezkuntza emozionala” hitzaldia, maiatzaren 31n

Maiatzaren 31n ospatuko da Hitz Ahok antolatu duen solasaldia, 17:00ean Udarregi Ikastolako eraikin gorriko bigarren gelan. Jon Berastegik bideratuko du saioa.

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaqua.eus // www.noaqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Jon Galbete, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Garazi Lizaso Manterola

Indar bat gara gu!

Maiatzaren 6an Berriozarren izan genuen zita. Euskal Herriko Bilgune Feministak 15 urte bete ditu, baina Emakume* Abertzaleon VII. Topaketa Feministak ospatzeko ere baliatu genuen eguna.

Urte horietan guztietan zapalkuntza hirukoitzaren (sexu-genero, klase eta nazio-kultura zapalkuntzak, hain zuzen) aldarriari eutsi eta betaurreko moreak garbitu ditugu. Eraldaketarako proposamenak eta estrategiak gaurkotu ditugu, intersektionalitatea ere kontuan hartu dugu. Bestela esanda,

gainerako zapalkuntzen askotariko adierazpenei ere behatu diegu, hala nola, sexualitatea, adina, etnia, hizkuntza ahalmenak...

Argi dugu egungo eredu ekonomiko, sozial eta politikoa erabat zapaltzailea ez ezik, baztertzaila ere badela. Botere harremanetan egituratzen da eta kapitala du erdigunean. Periferian kokarazi gaituztenon bizitzak? Bost axola!

Ametsak, nahiak edo desioak betetzeko bideak duen garrantziaz aspaldi konturatu ginen. Horrela, Euskal Herriaren Burujabetza Feministarako bidea eraikitzen ari gara, urrats bakoitzean, ha-

rri bakoitzean. Nahi dugun Euskal Herria horrek bizitzak izango ditu erdigunean, ezinbestean, bestela ez gara guztiok aske izango.

Bide horretan, boterea ezaugarritzea tokatzen da. Zer da boterea? Non dago? Nola erabiltzen da? Eta gu Berriozarren botere(tze) feministaz aritu ginen.

Feministontzat boterea ez dago estatu egituretan edota harreman ekonomikoetan soilik. Ez da goitik beherakoa. Boterea nonahi dagoen elementua da, harreman guztietan zirkulatzen duen indarra. Elementu ezberdinen araberako zenbait botere ha-

rreman daude jendartean, edozein norabidetan eta harremanetan daude. Gainera, elkarren artean gurtzatzen dira.

Batzuek ikusgarritasunarekin lotuko dute boterea. Beste batzuek, aldiz, ikusgarritasunak edukiaren nondik norakoa ez duela bermatzen esango dute. Eragiteko gaitasunarekin lotu daiteke boterea. Baina, egia da boterea aitortu egiten diegula, beraz, guk ere badugu botererik...

Hemendik hausnartzeko gonbita luzatzen dizuet, hori bai, ez ahaztu: **INDAR BAT GARA GU!**

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | **Garazi Lizaso Manterola** | Luis Aranalde | Idoia Torregerai | Luken Arkarazo

Ika-mika

Ostegunean erabakiak hartzera ikastolan

Ostegunean, maiatzaren 25ean ikastolako Batzar Orokorra egingo dute Udarregi kooperatibako kideek, gehien gehienak gurasoak direnak. Batzar hori da urtean zehar gurasoen parte hartzearen gailurra, erabakiak hartzeko unea. Aurten ondoko gai hauetaz erabaki behar dute, bere bozkarekin, kooperatibako kideek: metatutako diruarekin zer egin, datorren ikasturtean zehar gurasoek ordaindu beharko duten kuota- ren kopurua, 2017ko aurrekontua onartu, eta Artekartzita

Kontseilurako eta Zaintza Batzorderako kide berriak aukeratu.

Metatutako diruari dagokionez, bi proposamen daude, biak bateragarriak direnak. Lehena, eraikin berria egiteko eskatutako mailegua amortizatzeke proposamena da. Bigarrena, diru erreserben erdia gutxienez, banku etikoetan gordetzea.

Kuotari dagokionez, Batzarrak erabaki beharko du ea datorren urtean gurasoek ordaindu beharko duten aurtent bezala, 38 euro, edo kuota

jaitsi nahi duten 20 euro ingurura. Lehenengo proposamenak aurretutako diru kopurua handitzen jarraitzea suposatzen du, eta bigarrenak, aldiz, egun dauden erreserbak mantentzea, gehiago handitu gabe. Honetaz gain, erabaki beharko dute ea guraso bakarreko familiek kuota erdia ordainduko duten, edo, orain arte bezala, kuota osoa. Erabaki bera hartu beharko dute ikastolan 3 edo ume gehiago duten familientzako, hau da, kuota osoa ordaindu, orain arte bezala, edo kuota

erdia ordaindu hirugarren umetik aurrera.

Azpitarratzekoa da ikastolaren funtzionamendu onerako fundamentalak dela gurasoen parte hartzea, eta parte hartze horren muina erabakietan parte hartzea dela. Horretarako da Batzar Nagusia, non gurasoek duten aukera, bere bozkarekin, erabakitzeko. Animatu zaitezte, etorri Batzarrera, eta eragin zure bozkarekin!

Biziberritu lan-taldea.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: ekainak 2. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 29.

Ekainaren 10eko Gure Esku Dagoren mobilizazioan parte hartzeko deia

Maiatzaren 7an Zubietan eta Usurbilen ospaturiko herri galdeketen ondoren, erabakitze eskubidearen aldeko hitzordu berri bat dugu ate joka. Nazio mailakoa, ekainaren 10ean, arratsaldeko 17:30ean Bilboko Euskadi Plazatik Eliptika Plazara ospatuko dena. Bi guneeon artean, galdera ikur erraldoi bat irudikatu nahi da euskal herritarren laguntzaz. Amaieran gainera, Gure Esku Dago mugimenduak azken hilabeteotan landutako Herritarren Ituna aurkeztuko du.

Itunak Euskal Herrian erabakitze eskubidearen alde orain arte lortutako adostasun eta oinarriak biltzen ditu. "Gizarte osoarentzako tresna ireki bat izateko jaio da, baita pauso berri eta sendo bat emateko ere, erabakiaren bidean. Ekainaren 10ekoa, beraz, ez da hutsetik jaiotako ekimena; orain arte egindako lana oinarri, aurrera egiteko abiapuntua izango da", iragarri dute Herritzartu Elkarretik.

Izen emate mahaia

Bilboko hitzorduan parte hartzeko konpromiso txartela eskuratu beharko da alde aurretik. Txartelarekin batera, mobilizazioan erabili beharko den puxika bat ere bai. Guztia, 2 eurotan, Gure Esku Dagoren Usurbilgo lan taldeak, asteotan Sutegi inguruan jarriko duen izen emate mahaian jaso



Ekainaren 10ean, arratsaldeko 17:30ean, Gure Esku Dago mugimenduak Herritarren Ituna aurkeztuko du. Argazkia: gureeskudago.eus.

HERRITZARTU

"Ekainaren 10ekoa, beraz, ez da hutsetik jaiotako ekimena; orain arte egindako lana oinarri, aurrera egiteko abiapuntua izango da"

ahalko da. Bildutako dirua, antolaketa gastuetara bideratuko

da. "Animatu eta parte hartu!", luzatu dute gonbita Usurbilgo Gure Esku Dagoren lan taldeak, NOAUA!ra helarazi duten idatzian.

Informazio gehiago:

usurbilgureeskudago@gmail.com
Facebook:
Gure Esku Dago Usurbil
Twitter: @GureEskuDagoU
web orria: gureeskudago.eus



Sagardo Egunean ere, Olatz, Patxi eta Xua gogoan

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, euskal presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea, giza-katea egin zuten sagardoarekin 36. Sagardo Egunean, Mikel Laboa plazatik abiatu eta Askatasuna plazako bolatoki gaineko terrazaraino. Mobilizazioa deitu zuten, "Olatz eta Patxi, eta aurten ere Xua beren alabatxo, festara ekarri nahi ditugu maite ditugula eta lehenbailehen gure artean izan nahi ditugula adierazteko".

Maiatzak 26, ostirala

20:00 Azken ostiraleko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Bertan elkartu eta Sutegira joango dira bideo bat ikustera. Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

Ekainak 16, ostirala

Manifestazioa Donostian, Sarek antolatuta. "Mobilizazio horrekin, behingoz presoek auziari heldu eta konponbidea gauzatzeko bidean jartzeko kanpaina indartsu baten hasiera izango da".

Zozketa

Mariskada eder bat zozketa-zuen Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak Sagardo Egunean. 1.700 izan zen zenbaki saritua.

Uraitz, s.l.
Igeltzeritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Patxi
Patrikenea
Jatetxea

bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

“Helburua, trena Mozal Legearen aurkako mural ibiltarian bihurtzea zen”

Maiatzaren 13an Usurbilgo tren geltokian Mozal Legearen aurkako pintaketak egiten ari zen ekintzaile taldeko kideetako bat trenak harrapatu zuen. Biharamunean, ezbeharrean larri zauritutako gazteari elkartasuna adierazteko eta aipatu legearen aurka, elkarretaratzea egin zen Donostiako Bulebarrean.

Bezperan gertaturikoa azaldu zuten bertan. Ekintza sozialen eremuan kokatzen dute udalerrri honetan gertaturiko istripua. Hilaren 13an Donostiatik zetorren trena, Usurbilgo geltokian gelditu eta bi minutuko geldiupea, Mozal Legearen aurkako pintaketak egiteko baliatu nahi izan zuten. Tarte horretan, larriki zauritu zen ekintzailea trenbidera atera eta puxika laranja batekin trena geldirik mantentzeko eskatzen aritu zen. Treneko makinistak aldiz ez zuen ikusi gaztea. Trena martxan jarri, ekintzailea harrapatu eta andena amaitu arte eraman omen zuen arrastaka.

Mozal Legea, indarrean oraindik

Ekintza erreibindikatioaren helburua, “Donostiatik Bilbora joaten den trena, Mozal Legearen aurkako mural ibiltarian bihurtzea zen”. Mezua ikusgarri egitea, bide guztian, geltokietan eta bidaiarien aurrean. Halako salaketa ekintzak beharrezkoak direla nabarmentzen dute ekintzaileek, guztiz zilegiak direla,



Maiatzaren 13an Mozal Legearen aurkako pintaketak egiten ari zirela, trenak Usurbilgo geltoki parean harrapatutako ekintzaileari babesa adierazi zitzaion 36. Sagardo Egunean Aitzaga atarian egin zen elkarretaratzearen bidez. Mobilizazioa, Mozal Legearen aurka protestatzeko ere baliatu zen.

MAIATZAREN 13AN

“Treneko makinistak ez zuen ikusi gaztea. Trena martxan jarri, ekintzailea harrapatu eta andena amaitu arte eraman omen zuen arrastaka”

gogorarazten dutenez “Mozal Legeak indargabetu gabe segitzen baitu”.

“Elkartasunetik konpromisora pasatzeko garaia da”

Elkarretaratze berean, Eleak Libre mugimendutik, azken 20 hilabeteotan “gure eskubide zibil eta politikoak 11.000 al-diz bortxatu dituzte”, nahiz bai

Iruña zein Gasteizko legebiltzarrak Mozal Legearen aurka agertu izan diren. Horregatik, bi deialdi egin zituzten. Bate-tik, “Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari ez diezaiela zigor edo isunik jarri ekintzaileei. Prozedura penal bat ireki dute. Hau bertan behera uztea” eskatzen dute. Bestalde, Euskal Herriko langileriarik ekintza sozial hauen aurrean jarrera proaktiboa izatea eskatzen diote, “salaketa soziala oztopatu beharrean bertan parte har dezaten edo garatzen utz dezaten behintzat. Eskubide zibil eta politikoak guztionak direlako, baita beraienak ere. Eskubide zibil eta politikoaren eremuan, elkartasunetik konpromisora pasatzeko garaia da”.

Lorazain ofizial lanpostua betetzeko lan deialdia

Usurbilgo Udalekoa den lanpostua, lehiaketa-oposizio sistema bidez beteko da.

■ Plaza kopurua: 1.

■ Eginkizunak: “Obra eta zerbitzuetako enkargatua-ekin elkarlanean udaleko berdegune eta lorategien diseinua eta mantentzearen plangintza eta programazioaz arduratzea. Lorezaintzan sortzen diren lanak kudeatu eta burutu. Hilerrietako mantentze eta lorezaintzako lanez arduratu, bertako langileen lana gainbegiratu. Bere ardurapean esleitzen zaizkion langileen lanaren jarraipena eta kontrola burutu...”.

■ Eskabideak: udal errejistroan, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, 20 egun naturaleko epean. Eskabide eredu ofiziala udal errejistroan edo usurbil.eus atarian eskuragarri.

■ Informazio gehiago: maiatzaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala / usurbil.eus / 943 371 951.

Ikastola Egunerako laguntza deialdia

Ekainaren 10eko herri bazkarian, prestaketa, zerbitzatzeko, jasotze edo garbiketa lanetarako laguntza behar dute. Izen emateko: Udarregi Ikastolako idazkaritzan, 943 361 216 telefono zenbakian edo emailaz: usurbil@ikastola.eus

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikulatzeko epea laster zabalduko da

Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketan laster izango da aurre-matrikula osatzeko garaia. Ekainaren 5etik 16ra luzatuko da epea. Ohi bezala, bi izango dira eskainiko diren zikloak: Ile-apainketa eta Estetika arlokoa batetik; Sukaldaritza eta Jatetxe arlokoa bestetik.



Ile-apainketa eta estetika arloaren ingurukoa da zikloetako bat.



Sukaldaritza eta jatetxe arloari lotuta dago beste zikloa.

izatea.

Oinarrizko Lanbide Heziketa

Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren barnean dago. "Arautua da. Publikoa eta doakoa. Eta Zubietako Lanbide Eskolari atxikitua dago".

Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetan sartzeko, baldintza hauek bete behar dira aldi berean:

- 15-17 urte arteko gaztea izatea.
- DBH 3 egina izatea edo, salbuespen modura DBH 2 egina

Bi bertsopaper lehiaketa egingo dira aurtengo jaietan

Batetik, ohi bezala, 16 urtetik gorako usurbildarrentzako 41. Bertsopaper Lehiaketa antolatu da hilabete barru ospatuko diren jaien harira. Lanek 8-10 bertso artekoak eta inoiz argitaratu gabek izan beharko dute.

Lehen aldiz, LH5 eta 6 mailetakoko ikasleei zuzendutako txapelketa

Bestalde, estreinakoz, LH5 eta 6 mailetakoko usurbildarrei zuzenduriko txapelketa ere antolatu dute Bota Puntubak eta Usurbilgo Udalak. Hiru gai jarri zaizkie aukeran eta ho-

riei buruz idatzi beharko dute: Santixabelak, udako oporrak edo Usurbilgo txokoak. Bi bertso idatzi beharko ditu parte hartzaile bakoitzak.

Bi txapelketa hauetarako lanek ekainaren 19a baino lehen aurkeztu beharko dira helbide honetan: Joxe Martin Sagardia plaza. Usurbil 20170. Egileak izengoitiz aurkeztu beharko du lana. "Lanarekin batera kartazal itxi batean parte hartzailearen datu pertsonalak aurkeztuko dira". Txapelketon sari banaketa, ekainaren 29ko jaietako bertso saioaren amaieran ospatuko da.

Informazio gehiago jasotzeko:

Eskola bisitatzeko eta aurrematrikula egiteko helbide honetara zuzendu:

OLHUI:

Atallu. Zanziura, 3
20170 Usurbil
Telefonoa: 943 36 04 65
lhi@usurbil.eus

NOAUA!ko bazkide izateak saria dakar

Jexux Artze Kultur Elkarteak asteotan antolaturiko ekitaldietarako bina sarrera zozketatu genituen NOAUA!ko bazkideen artean. Mikel Elexpe Aginagari "Jainko basatia" antzezlanerako bi sarrera egokitu zitzaizkion eta Felix Aizpurua Arzallusi "Itzal zaunka" konzerturako bi sarrera.



Jexux Artzeren omenezko saioetara joateko sarrerak eskuratu zituzten.

Ramon Unanue Matxainen argazki bilketa

2013ko azaroan zendu zen Ramon Unanue Matxain herritarri merezitako aitortza ekitaldia antolatzen ari zaio herritar talde bat, ekainaren 24rako. Urte luzez kirol eta giza talde anitzekin eginko lana aitortu nahi diote, Ramon nor zen ezagutzera eman. Ekainaren 24an, hainbat kirol jardura ospatuko dira eta senideei ere aitortza ekitaldia egingo zaie. Ramon Unanue argazki bilduma bat ere ikusgai izango da.

Erakusketa baterako

Bere argazkirik baldin baduzu gustura hartuko lukete antolatzailerak aipatu erakusketarako. Irudiak izan eta utzi nahi badituzue, xmerre@gmail.com helbidera helarazi ditzakezue.



Bere argazkiekin osaturiko erakusketa bat egin nahi da.

Danborradako entseguak

Ekainaren 14an abiatuko dituzte entseguak. Astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira, 20:00-21:00 artean Udarregi Ikastolako frontoian. Danbor joleak uztailearen 1ean irtengo dira kalez kale, 19:00-21:30 artean.


ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 36 11 82

Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko azken egunak

Bi izen emate iragarri ditu Zumarte Musika Eskolak. Batetik, ekainaren 3rako musika eskolan bertan antolatu duten Lalala soinu gelan apuntatzeko epea maiatzaren 26ra artekoa izango da. Prezioa, 15 euro familiako. Ekimen hau, 0-3 urte arteko haurrei eta haien familiei zuzenduriko musika tailerra da. Egun berean itxiko dute baita, 2017-18 ikasturterako matrikulatzeko epea ere.



Zumartekoak, Olatu Talkan. Abesbatzako kideak Donostiako Alderdi Ederreko ikuskizunean aritu ziren. Akordeoilariak, aldiz, Donostiako portuan.

2017/2018 matrikulazioa

■ **Ordutegia:** goizez 10:30-12:30 artean, ostegun eta ostiralean; arratsaldez egunero, 16:30-19:30 artean.

■ **Tokia:** Zumarte Musika Eskola.

■ **Prezioak:**

-Musika Txokoa (4-7 urte artekoentzat): 125 euro.

-Musika Txokoa + instrumentua: 250 euro.

-Musika Mintzaira: 125 euro.

-Musika Mintzaira + instrumentua + abesbatza taldea: 250 euro.

-Instrumentua eta taldea: 125 euro (Panderoa: 70 euro).

-Abesbatza edo Talde Instrumentala bakarrik: 50 euro.

Izen emateko prozedura:

■ Zumarten nahi edo behar den informazioa jaso.

■ Ordainketa Kutxabankeko

kontu zenbaki honetan egin: ES15 2095 5069 08 1062820021. Ikaslearen izen abizenak adierazi eta ordainagiria jaso.

■ **Izena ematerakoan** aurkeztu beharrekoa: ordainagiria, zuen kontu zenbakiko 20 zenbakiak, ikasle berriek argazki bat eta inpreso sinatua.

■ **Oharra:** instrumentuko ikasleek hileroko 28 euroko kuota ordaindu beharko dute.

Oharra:

Musika Txokoa, musika mintzaira eta instrumentuko ikasle berrien kasuan, eskainitako plaza kopuru baino eskaera gehiago badago, matrikulazioa bukatu eta hurrengo ostegunean 19:00etan zozketa egingo da. “Zozketan sartu ahal izateko matrikula ordainketa egin eta agiria mu-

sika eskolan entregatu behar da ikaslearekin datuekin batera. Zozketaren ondoren itxarrote zerrenda egingo da eta bajarik egonez gero itxarrote zerrendako ikasleak sartuko lirarteke. Zozketaren ondorioz plaza gabe geratzen diren ikasleei bakarrik itzuliko zaie matrikula”.

Informazio gehiago:

943 371 594

zumarte.org

Lalala Soinu Gela

■ 0-3 urteko haurrentzat eta beren familientzat.

■ **Non:** Zumarte Musika Eskolan.

■ **Noiz:** Ekainak 3, larunbata.

■ **Prezioa:** 15 euro, familiako.

■ **Izen ematea:** Zumarte Musika Eskolan, (maiatzak 26 arte).

Udaberri Festaren amaiera

Egunotan amaituko da, Zubietako Eskolako guraso elkar-teak antolaturiko Udaberri Festa. Ekitaldion bueltan izango da:

Maiatzak 25, osteguna

16:30 Merendola.

17:00 Puzgarriak eta trebetasun frogak.

Maiatzak 26, ostirala

17:30 Zubietako antzerki taldeko ikuskizuna.

18:00 Buruhandiak eta maskuri zozketa.

19:30 Afari-merienda.

Ondoren, disko festa eta eskal dantzak.

Antolatzailea: Zubietako eskola txikiko guraso elkarte.

KzGunekeko datuak ikastaroak

Maiatzaren 31ra arte goizez zabalduko dute KzGunea, 09:00-13:00 artean. Ekainaren 1etik aurrera, arratsaldez, 16:00-20:00 artean.

■ Ekainak 1-2, 16:00-18:00 “Erosketa seguruak Interneten”.

■ Ekainak 1-2, 18:00-20:00 “Youtube. Bideoak ikustea baino gehiago”.



Azkar lantegiko lan uztea

Iragarria zuten, enpresak negoziatzeko borondaterik agertzen ez bazuen, greba egingo zutela maiatzaren 22an. Eta hala egin zuten. Lan uztea egin eta Zubietako Dachser Group-eko (Transportes Azkar) langileak lantegi aurrean mobilizatu ziren astelehenean, 2009az geroztik izan ez duten lan hitzarmenaren alde. Hitzarmena negoziatzen ahalegindu da Langileen Batzordea. Apirila amaieran Zubietako lantegiko zuzendaritzarekin bildu ziren, baina adierazi duteenez, “enpresa zuzendaritzak muzin egin zion negoziaketak hasteari, bere eskumenean artean horrelakorik ez zegoela argudiatuz”.

Ur-sorospen ikastaroa DYAren egoitzan

Uretan sor daitezkeen larrialdi egoeren aurrean nola jokatu jakiteko ikastaro teoriko-praktikoa antolatu du DYA Gipuzkoak Usurbilen.

■ Ekainaren 3tik 25era, astebururo izango dira saioak, DYAk Muna Lurraren duen egoitzan; larunbatetan, 09:00-13:00 artean eta 15:00-19:00 artean; igandeetan 09:00-13:00 artean.

■ Matrikulazioa: 220 euro. Plaza kopurua mugatua izango da.

■ Informazio gehiago eta izen ematea: 943 46 46 22 edo dyagipuzkoa.com.

■ Ikastaroaren amaieran, Uretako Sorosle Titulua eskuratzeko aukera izango da. Ikastaroan parte hartzeko lehen sorospenen titulua indarrean izan beharko da.

UEU-ren udako jardunaldietako bat, Usurbilen

Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroen baitan, “Euskara, generoa, jatorria, eta klasea gurutzatzen diren lekua” izeneko jardunaldia ospatuko da Usurbilen, uztailearen 13an eta 14an, Usurbilgo Udalak, Udako Euskal Unibertsitateak eta Jakin Fundazioak elkarlanean antolatuta. Maiatzaren 22az gerostik zabalik dago matrikulazio epea. Xehetasunak ueu.eus atarian jaso ditzakezue.

Xabier Arregi, alkatea:

“Zatozte gure herriaren erdira eta hartu zuentzat gure plaza”

Ez da jardunaldi akademiko soila izango. Xabier Arregi alkateak aurreratu zuenez, Udaletik, egitarau akademikoari ongi josia egongo den “bestelako ekintza osagarriak eta jendaurrekoak ere egin nahi ditugu”. Parte hartzeko gonbita luzatu zuen. “Uztailean gurea nahi genuke etortzea, gai honekin interesa izango duen herritarra, pentsalariak, adituak, arituak, eta esan, gaurtik ateak zabalik izango ditugula jardunaldietarako eta Usurbil bisitatu nahi duen edonorentzat”, adierazi zuen Arregik, jardunaldi hau antolatzea ohre handitzat jotzearekin batera.



Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), Jakin Fundazioak eta Usurbilgo Udalak martxoaren 27an sinatu zuten hiru urterako elkarlanerako hitzarmena.

IÑAKI ALEGRIA, UEU

Uztailearen 13an eta 14an Usurbilen ospatuko den jardunaldiak aukera ederra eskainiko du “hausnarketarako, eztabaidarako eta gaietan sakontzeko”

Usurbilgo Udalak, azpiegitura fisiko eta teknikoak jarri eta jardunaldiok finantzatzeaz gain, gunea eskainiko dio Jakin Jardunaldiari. “Zatozte gure herriaren erdira eta hartu

zuentzat gure plaza”, adierazi zien alkateak, jardunaldian parte hartu nahi dutenei. Hiriburuaren periferian kokatua egon arren, Usurbilek bere txikitasunean ere nor badela esateko nahia eta beharra baduela adierazi zuen alkateak eta “beraz gure plaza zuekin partekatzea interes eta ilusio handikotzat daukagu”. Guneaz gain, jardunaldi hau antolatzeko unea ere oso egokitzat jotzen du alkateak. Azken hamarkadotan bezala, galdera bertsuak ditugulako gaur egun ere, “nola heldu behar diogun biharko egunari. Horra pentsalarien beharra, inoiz baino nabarmenago”.

Iñaki Alegria, Udako Euskal Unibertsitatearen zuzendaria: “Arrakastatsua izatea espero dugu”

Aukera ezinhobetzat jotzen du UEUren zuzendari Iñaki Alegriak uztailearen 13an eta 14an Usurbilen ospatuko den jardunaldian parte hartzea. Bat baitator UEUren helburuekin. Mende laurdeneko ibilbidea osatua du erakundeak euskal unibertsitate herritarra erakitzen, antolatu izan dituen ikastaro eta Usurbilgoa bezalako topaguneei bidez. “Oso ondo atera eta arrakastatsua izatea espero dugu”, desio du Alegriak.

Topagune honek aukera ederra eskainiko du bere esanetan, “hausnarketarako, eztabaidarako eta gaietan sakontzeko”.

Oso positiboa iruditzen zaio duela bi urtetik Jakinekin hasia duen lankidetzak, “emaitza bikaina izan du”. Usurbilekin abiatzera doan lankidetzak berria da UEU-rentzat, eta udalerrri honek eskainiko duen tokia ere oso egokia dela dio. Matrikulazio prozesua kudeatuko du UEU-k, zabalkunde lanak egingo ditu eta zerbitzu teknikoak antolatzeko ardura ere bere gain hartuko du.

Joan Mari Torrealdai, Jakin-eko lehendakaria: “Unibertsitate herritarra ez da utopia”

Elkarlanaren eredu on eta unibertsitate herritarraren eredu gisa definitzen du Jakin Fundazioko lehendakari Joan Mari Torrealdai, hiru erakundeek sinatua duten lankidetzak hitzarmena. 1968ko maiatzaren ostetik, 70. hamarkadan herrietan antolatzen ziren hamabostaldi edota urteko ekitaldi zikloetan parte hartu izan dutela oroitzen du Torrealdai; bai egitaraua josten edo hizlari gisa. “Gaurkoa ere ildo horretan kokatuko nuke neu-

ri batean”. Argi erakutsi nahi dute, “unibertsitate herritarra ez dela utopia”.

Poza eta esker ona agertzen du fundazioaren izenean eta usurbildarra den heinean, aurkeztu eta sinaturiko lankidetzak hitzarmenaren eta esku artean duten egitasmoaren aurrean. Bat datorrena guztiz, “herria, kultura, hizkuntza”, Jakinen lelo hirukoitzarekin. Herri-gintzan dihardutelak oroitu baitu Torrealdai, euskalgintzari zentraltasuna aitortuz.

Lorea Agirre, Jakin-eko zuzendaria: “Guretzat ere zentzu betea du Usurbilen zerbait egiteak”

“Usurbil guretzat bada nor, gure kulturagintzaren memorian eta iruditerian. Ez da edozein toki, Jakinentzat ere zentzu betea du Usurbilekin eta Usurbilen zerbait egiteak”, dio Jakin Fundazioko zuzendari Lorea Agirrek.

Jakinek, pentsamendua sortu, kontrastatu eta sozializatzen tradizio handia duela nabarmentzen du. Baita elkarlanean aritzeko ere. UEUrekin esaterako. “2015ean hasi ginen elkarlanean eta egin ditugun bi jardunaldietan oso gustura geratu gara”, Agirreraren esanetan. Jardunal-

diak antolatzeko erabat naturala zaie Jakinekoei.

Usurbila adituak, baina bereziki arituak ere ekarri nahi dituzte, “eta hor, hitz teoriakoen eta errealtatean gertatu eta egiten diren ekimenen inguruan halako kontrastea sortu”. Jakinek gogoetatu, diseinatu, antolatu, lotu, zuzendu, koordinatu eta dinamizatuko du hitzarmenaren arabera, uztaileko jardunaldia. Gai honen inguruko zenbaki monografikoa ere landu eta argitaratuko du.

Larunbat honetan Zubietan, Erraustegiaren Aurkako Eguna

Zubietako erraustegia eraikitzen hasi zirenetik astea bete zen egunean, maiatzaren 17an hedabideen aurrera agertu zen Errausketaren Aurkako Mugimendua Donostiako Udalean. Aste honetarako bi ekintza iragarri dituzte. Ostegunean, Decathlon-eko aparkalekutik abiatu eta eskualdea zeharkatuko duen “Barraskilo Operazioa” izeneko kotxe karabana. Larunbaterako, Erraustegiaren Aurkako Eguna Zubietan. Hitzorduotan parte hartzera deitzen dituzte gipuzkoarrak.

“Ez etsi”

Erraustegiaren Aurkako Mugimendutik gogorarazten zutenenez, 2011n hasi zituzten erraustegiaren eraikitze lanak, gerora, Bilduk Gipuzkoako Foru Aldundira heldu eta lanak geratu zituen. Aipatu moduan, bigarrenz abiatu berri dituzte lanok Zubietan eta garai berri hau ez dute orain arteko bidearen amaiera gisa ikusten, erraustegia berriz geratzeko aukeratzat jotzen dute. Horregatik mezu bikoitza helarazi nahi izan zuten Donostiako agerraldian. Lehenengo mezua gipuzkoarrei. “Ez etsi! Ez onartu erraustegi kriminal hau!”. Diotenez, “PNV eta PSOEko agintariak jendea engainatzeaz gain, errausketaren egiak ezkutatzaz gain, herritarrok nazkatuta etsitzea nahi dute”.

“Injustizia hau ezin da onartu”

Bigarren mezua hedabideei zuzendu nahi izan zieten. “Kontatu egia errausketaz eta hondakinen kudeaketari buruz. Zabaldutako informazio eta eztabaidarako gune zabal eta libreak. Ez onartu hedabide handien eta agintarien agindu bidegabeak”.



Usurbildar batek eta donostiar batek urtean sortutako erreus kopurua dagoen aldea irudikatu zuten.

ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA

“Zein eskubide daukagu gure zabarkeriagatik auzoa kutsatu eta hondatzeko? Kutsatzeko eskubiderik ez dauka inork”

2011n eraikitze lanak lehen aldiz hasi zituztenean bezala, orain ere, sei urte beranduago milaka gipuzkoar errausketari ezetz esaten ari zaiela gogorazi dute Errausketaren Aurkako Mugimendutik, “txarra delako osasunarentzako, ingurumenarentzako, ekonomia-arentzako eta enpleguarentzako”.

Gaineratu zutenenez, sei urteotan Gipuzkoan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira hondakinen kudeaketan; “Gipuzkoa osoan zabaldutako hondakinentzako kudeaketa sistema hobea, merkeagoa, enplegu gehiago sortzen duena, garbiagoa”.

Adibide moduan aipatzen zuten, usurbildar eta donostiar batek urtean sortzen duten erreus kopuruaren artean

dagoen aldea. Usurbildar batek 60 kilo erreus sortzen ditu urtean, donostiar batek usurbildararen laukoitza baino gehiago, 281 kilo urtean. “Zein eskubide daukagu gaizki egiteko ondo egin daitekeena? Zein eskubide daukagu gure zabarkeriagatik auzoa kutsatu eta hondatzeko? Kutsatzeko eskubiderik ez dauka inork”, eta gaineratzen zutenenez, “injustizia hau ezin da onartu”.

Alferrikako gastuak

Gipuzkoa jorratzen ari den bidearen aurrean eta milaka gipuzkoarrek erraustegiaren aurkako jarrera argia erakutsi arren, Errausketaren Aurkako Mugimendutik salatu dutenez, Gipuzkoako agintariak “ez dute entzun nahi, ez orduan eta ez orain”. Agintariak buruz gaineratzen dutenez, “tematu dira zerbitzu publikoen kontrata pribatu handiei milioi askoko oparia egiten. 2011n milioi askoko zorra egin zioten Gipuzkoari SWAP madarikatu haiek, 2017an 35 urterako hipotekatu gaituzte 1.000 milioitik gorako alferrikako gastuetan”.

Deialdiak

Maiatzak 25, osteguna

■ 18:00 “Barraskilo Operazioa” auto karabana Decathlon-eko aparkalekutik abiatuta.

Maiatzak 27, larunbata

Erraustegiaren Aurkako Eguna Zubietan. Egitaraua:

■ 11:00 Ongi etorria.

■ Hitzaldiak Kaxkapen:

11:30 “Nafarroan errausketarik gabeko Hondakin Plana” Martin Zelaia (Sustrai Erakuntza).

11:30 “Errausketa eta Nekazaritza” Baserría XXI.

12:30 Alianza Incineradora de Valdemingomez NO Javier Navascues.

■ 11:30 Haurrentzat tailerrak.

■ 13:30 Adierazpenaren irakurketa.

■ 14:00 Herri bazkaria: Menua: paella, postrea eta edariak. Prezioa: 5 euro haurrek, 10 euro helduek. Txartelen salmenta: Usurbil (Aitzaga, Bordatxo), Zubieta (Alaman-degi).

■ Oharra: Ahal dela oinez bertaratzea gomendatzen da.

■ Antolatzailea: Errausketaren Aurkako Mugimendua.

Gipuzkoa Zutik-ek martxa nazionala deitu du erraustegia eraikitzen hasi diren guneraino

Maiatzaren 27an Zubietan deitua dagoen Erraustegiaren Aurkako Egunean, obrak egiten ari diren gunera martxa nazionala deitu du Gipuzkoa Zutik Mugimenduak. Erraustegia eta makrokartzela bisitatuko dira ibilbidean zehar. Hitzordu gehiago ere deitu dituzte.

“Herritarren errepresioa dira”

Arduragabetzat jotzen dute behar ez dugun erraustegi bat eraikitzea. “Zakilkeria litzateke bere kearekin eta elikaduraren bidez gaixotuko gaituen tximinia inutil bat egitea. Basakeria litzateke kea arnastera 1.100 preso kondentatzea. Zubietako makrokartzela eta erraustegia, herritarren errepresioa dira”, adierazi du Gipuzkoa Zutik mugimenduak sare sozialen bidez.

Salatzen dutenez, “%1ak hurrengo 35 urteetan diru publikotik negozioa egingo duela aseguratzen, murrizketa sozialetako dirua bideratuko dute behar ez ditugun proiektu usteletara: Erraustegia, AHT, Donostiako Metroa, Getxoko Ibarbengoa parkinga... Murrizketa sozialak eta proiektu ustelak txanpon beraren bi aldeak dira. Eta txanpon hori beti da gurea!”. Horregatik diote, “%99a gara eta ez diegu utziko gure dirua lapurtzen!”.

Maiatzaren 27an, larunbata

Zubietako Erraustegiaren Aurkako Egunean, Gipuzkoa Zutik mugimenduak antolatuta:

- 12:00 Jar gaitezen zutik Gipuzkoa mailan.
 - 12:00 “Euskal Herrian ere %1a vs %99?” Iritzi trukea.
 - 16:00 Erraustegiaren eta makro-kartzelaren aurkako martxa nazionala.
 - 20:00 Amaiera ekitaldia.
- Antolatzailea: Gipuzkoa Zutik mugimendua.



Iazko otsailean antzeko martxa antolatu zen. Larunbat honetan antzeko ibilbidea osatuko dute.

GIPUZKOA ZUTIK

“Zakilkeria litzateke bere kearekin eta elikaduraren bidez gaixotuko gaituen tximinia inutil bat egitea. Zubietako makrokartzela eta erraustegia, herritarren errepresioa dira”

Baserría XXI: “Ezin dugu honelako astakeria bat onartu”

Larunbaterako Zubietan antolatua dagoen Erraustegiaren Aurkako Egunean baita deitu diren hitzaldietako bat, Baserría XXI, Gipuzkoako Baserritarren Elkarteak eskaniatu du Kaxkapen. Erraustegia eraikitzen hasi berri diren honetan, lehenagotik ere adierazi izan duten proiektu honen aurkako “atxikimendu hori berrestera gatz” adierazi dute egunotan. Errausketaren Aurkako Mugimenduaren aldarrikapenekin bat egin eta gainerako baserri-

tar zein eragileei erraustegiaren aurka agertu eta alternatibetan parte hartzea deitzen dute, “gure herriarentzat kalitatezko janaria ekoizteko ardua daukagunok ere ezin dugulako honelako astakeria bat onartu. Eutsi Lurrari! Errausketarik ez!”.

“Gure landare eta abereei aire garbia kenduko die”

Erraustegiak ingurumenarentzat ekarriko dituen kalteak azpimarratzen dituzte. “Azpiegitura handi batek gure landare eta abereei aire garbia kenduko die, gure jarduerarako ezinbestekoa den ur garbia pozoituko du, horren beharrezkoa den eta urri daukagun materia organikoa pribatizatuko du, eta horren eskas daukagun lur emankorreko hektarea pila bat pikutara bidaliko ditu eraikuntzarekin berarekin eta bertako hondakinak gordetzeko behar diren zabortege bereziekin”.

Protesta zaratatsua bigarren ostiralez jarraian

Erraustegia eraikitzen hasi zirenetik bigarren ostiralez jarraian mobilizatu ziren usurbildarrak maiatzaren 19an Mikel Laboa plazan. Txistu hots eta burrunba handia sortaraziz, Zubietan gainean eraikitzen hasi diren plantaren aurka protesta egin zuten, Errausketaren Aurkako Usurbilgo Taldeak deituta. Amaieran, egunotarako deituak dauden ekimenak gogora ekarri eta hitzorduotan parte hartzeko gonbita luzatu zuten mobilizazio antolatzaileek.



Ostiralean elkarretaratzea egin zen Mikel Laboa plazan.



GARDOL
SUA
1988
BERNANI
SAS

GARDOL
SUA
1988
BERNANI
SAS

GARDOL
SUA
1988
BERNANI
SAS

BERNANI
SUA
1988
GARDOL
SAS



Klik! batean

Festa noiz hasiko zain

**Baldea, gainezka. Botilak, hozbero egokian.
Laster hasiko dira botatzaileak lanean.
Gauzen orden naturala amaitzear da...**

Argazkia: Ion Markel





Argazki eta bideo gehiago www.noaua.eus web orrian aurkituko dituzue. 1, 2 eta 3 argazkiak: Iñaki Agirresarobe.

Aizpurua sendia: “Ohore handi bat da hemen, zuen artean egotea. Eskerrik asko”

50 urte bete dituen Aizpurua Autobusak enpresako lan taldeak izan zuen aurtengo Sagardo Eguna abiatzeko ohorea. Merezitako omenaldia jaso zuen Aizpurua sendiak, Sagardo Egunaren Lagunak taldetik nabarmendu zutenez, “Usurbilekin duten harremanagatik, aitak eta amak duela 50 urte enpresa txiki hura, seme-alabek eta anai-arrebek hazi eta gidatu dutelako, leku batetik bestera seguru urteetan eraman gaituztelako eta sagardotegien munduan ere presente izan direlako”.

Sagardo Eguna abiatzeko ohitura ezin hobeto bete zuten. Antolatzaileek zapia jantzi, lehen sagardo botila ireki eta bertaraturikoekin lehen tragoa partekatu zuten.



Aizpurua Autobusak etzekoen izenean, Edurne, Joxe Antonio eta Eusebio igo ziren oholtza gainera. Beñat Gaztelumendi eta Arkaitz Oartzabal “Xamoa” bertsolariak eta Ixaak Arruti musikariak girotu zuten irekiera ekitaldia.

Aizpuruatarrek herria eskertu zuten, horrelako egun handi batean oholtza gainean egotea

ohore handi bat zela azpimarratzearekin batera. “Ohore handi bat da hemen, zuen artean

egotea, herritarrek, bertakoak garelako. Eskerrik asko. Gora Sagardo Eguna! Gora Usurbil!”.

Anartz Aizpurua nagusitu zen Botatzaileen Lehiaketan



Joxemari Zubimendi bigarren izan zen, eta Zuriko Lataillade hirugarren.

Anartz Aizpuruak irabazi zuen Sagardo Botatzaileen Lehiaketa. Aurrez, antolatzaileak postuz postu ibili ziren ikusmiran eta guztien

artean hiru botatzaile aukeratu zituzten. Joxemari Zubimendi bigarren izan zen eta Zuriko Lataillade hirugarren.

Egurrezko Sagardo Lehiaketan Urdairakoa izan zen onena



1.000 euroko saria eta ziurtagiria jaso zituen Patxi Azkonobietak (ezkerrekoa).

Urdaira sagardotegiak irabazi du Euskal Herriko I. Egurrezko Sagardo Lehiaketa. Tolosako Alejoenea bigarren izan zen eta Astigarragako

Larrarte sagardotegia hirugarren. Mikel Rodriguez, Juan Zuriarrain eta Guillermo Castaños adituak aritu ziren epaile lanetan.

Gertu Txartela, udal zerbitzuetarako ere bai

Orain arte zeuden hainbat arazo tekniko konponduta, erosketak ordaintzeaz gain, Gertu Txartela udal zerbitzuetan ere baliatu ahalko da aurrerantzean, Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez; bai Oiardo Kiroldegian, Sutegi udal liburutegian, Potxoenean, hondakinen bilketarako Atalluko larrialdi gunean edota Alkartasuna Kooperatibian. Gainera, ekainean Hurbilagoko establezimenduetan erosketak egiteagatik %10eko deskontua aplikatuko da.

Hurbilagoko dende egini-ko deskontuez eta VISA txartel arrunt modura erabiltzeaz gain, hainbat udal zerbitzuetan erabiltzeko aukera izango da.

Aukera ugari-ko txartela

Gertu Usurbilgo Herri txartela zenbait udal zerbitzuen erabilera errazteko asmoarekin sortu zen. “Hala ere, Usurbilgo Udalaz kanpoko arazo teknikoek eraginda, zerbitzu horiek ez zeuden eskuragarri orain arte. Behin arazo horiek konponduta, Gertu txartelak hasiera batean aurreikusita zeuden zerbitzu guztiak martxan jarri ditu”, udal iturriek



Potxoenean (irudian) eta Sutegi Udal liburutegian erabili daiteke.



Hondakinen bilketarako Atalluko larrialdi gunerako ere balekoa da.



Alkartasuna kooperatiban erabiltzeko prestatuta dago Gertu txartela.

HURBILAGO TXARTELDUNAK

“Lehendik Hurbilago txartela zeukatenek baina Gertu txartela eskatu ez dutenek, Nafarroako Rural Kutxaren bulegora joan daitezke txartel berria eskatzera”

aditzera eman digutenez. “Gauzak horrela, Hurbilagoko dende eginiko deskontuez eta

Visa txartel arrunt modura erabiltzeaz gain, hemendik aurrera Alkartasuna kooperatibaren gasolindegian deskontua lortzeko, Oiardo kiroldegirako, Sutegi liburutegirako, Potxoenea Kultur Etxean sartzeko eta hondakinen bilketako larrialdi puntuetan erabiltzeko aukera izango da”.

Nola eskuratu?

Usurbildarrek ez dute gauza

nabarmenik egin beharko ber-
rau lortzeko. “Hasteko, dagoe-
neko Gertu txartela daukate-
nek txartel berria jasoko dute
beraien etxeetan. Lehendik
Hurbilago txartela zeukatenek
baina Gertu txartela eskatu ez
dutenek, berriaz, Nafarroako
Rural Kutxaren bulegora joan
daitezke txartel berria eska-
tzera”, udal komunikazio ar-
lokoek jakinarazi dutenez. Adi,
maiatzaren 31n Hurbilago txar-
telak erabilgarri izateari utziko
baitio-eta.

Aukera berria txartela ez dutenentzat

Aurretik txartelik eduki ez eta Gertu txartela eskuratu nahi dutenek aukera izango dute. Horretarako, kiroldegian, liburutegian, udaletxean, Hurbilago-ko establezimenduetan edota Rural Kutxan eskura dezakete eskaera orria betez eta NAN-aren kopia bat entregatuz. Behin hori eginda, Udalak Rural Kutxarekin daukan hitzarmenari esker, eskatzaileek etxean jasoko dute txartela.

Bukatzeko, ekainean zehar Hurbilago-ko komertzioetan %10era arteko deskontuak egingo dira Gertu txartela erabiliz gero.

Telmo Irureta, liburutegian

Nork bere buruari jarritako erronkak betetzeko oztoporik ez dagoela argi utzi du bizitza osoan, baita oholza gainean ere. Telmo Irureta zumaiarraz ari gara. Alex Tello usurbildarrek landutako “Jendartean bidaide” antzezlanean ikusi genuen Sutegin, 2015eko Kilo- metroak jaialdiaren atarian. Aurreko astean liburutegian izan zen, Donostia 2016ren barruan, Amaia Ruiz de Galarreta aktorearekin batera idatzitako “Telmoren abenturak” izeneko saioarekin. Bi urterekin garu-



Telmok 2 urte zituenean garuneko paralisia diagnostikatu zioten.

neko paralisia diagnostikatu ziotenetik bizitakoak azaltzen ditu naturaltasun eta gertutasunez. Aurreko astean LH-ko haurrekin partekatu zituen bi- zipenok.

Muxurbilgo ikasturte amaierako saioa

Larunbat honetan, hilak 27, Muxurbil antzerki taldeko kideek ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute Sutegin. 12:00etan hasiko da eta sarrera doakoa da baina gonbidapena eskuratu beharko da.

Gonbidapenak, eskuragarri

Antzezlanea ikusteko gonbidapenak eskuragarri izango dira goizeko 11:00etatik aurrera Sutegiko sarreran bertan.

Tomaxen abentura berriak Santuenean

4 urtetik gorakoentzako pailazoen emanaldia antolatu dute Santueneko frontoian, ekainaren 2an 17:00etan. Ondoren txokolate jana izango da. Tomaxen abentura berriak eskainiko dira bertan; “Hiru ipuin” emanaldia. “Muxugorriek Tomax liburutegira joateko konbentzitu du, han, ipuinekin antzerkiak sortuko dituztelako. Beraz, Txanogorritxo, Hiru Txeritxo edota Hamelingo txirularia, bere erara antzeztuko dute”.

Miriam Arrillaga Beloki ibilbide arrakastatsua ari da osatzen pilota munduan

Bidea Zubietan hasi eta egun Anoetan ari da segida ematen. Eskupilotan, palan eta orain trinketeetan ere bai. Bide oparoa. Argi dio, "gustatuz gero segi beharra dago". Txapela ugari irabazia da, azkena, Euskal Herri mailakoa, duela aste gutxi Oiarztunen. Batxilergoko lehen mailako ikasketetan murgildua dagoen gaztearekin izan gara.



Eskupilotan, palan eta trinketeetan ibiltzen da Miriam Arrillaga Beloki. Euskal Herriko Pala Txapelketa irabazi berri du.

NOAUA! Azken txapela irabazi berria duzu.

Miriam Arrillaga Beloki: Oiarztunen izan zen, Euskal Herriko Txapelketan. Oiarztungo neska batekin jokatu dut. Hiru neurketa izan dira, denak irabazi ditugu eta gustura.

Orain arteko bidean sari gehiago badituzu?

Aurten Emakumea Pilotari Txapelketa irabazi dut. Iaz Euskal Herriko beste txapelketa bat. Eta Usurbilgoa baita.

Anoetako taldean zabilta.

Hasi Zubietako taldean hasi nintzen. Zubietan ordea ez zegoen neskarik eta Anoetako taldean

MIRIAM ARRILLAGA

"Zubietako taldean hasi nintzen. Zubietan ordea ez zegoen neskarik eta Anoetako taldean hasi nintzen, duela bizpahiru urte"

hasi nintzen, duela bizpahiru urte. Hantxe nabil gustura. Bertan jarraitzeko asmotan.

Nolatan eman zenuen lehen urratsa jarduerotan?

Esku pilotan hasi nintzen muti-

lekin. Mutilekin lehiatzen ezin nuela segi ikusi nuenean, esku-pilotako kide batek esan zidan palan etorkizuna banuela ikusten zidala. Bitan pentsatu gabe palaz jokatzeko hasi nintzen.

Zure ibilbidean, neska edo emakume gutxi topatu duzu beraz.

Ez dago oso zabaldua emakumeen pilota mundua. Zabalatzeko, neska gehiagok aritu eta txapelketan parte hartu behar.

Zer gehiago egin beharko litzaiteke, emakumeen kirolak da-

gokion lekua izan dezan?

Mutilekin egiten den bezala, hedabideetan gehiago agertu, jendeak ikusteko hor gaudela. Jendeak ikustea emakumeok ere ahal dugula gizonen kirol jardueretan aritu eta onak garela.

Helduko da, emakumea eta kirolari buruzko halako galderak egiteari utziko dioguna?

Lan asko egin beharko da baina nik uste dut noizbait helduko dela eguna. Emakumeon kirol jarduerak bultzatzen badira, une hori iritsi daiteke.

Eskubaloia kiroldegian

Maiatzak 27, larunbata

■ 09:30 Alebin nesken Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa: bi final laurdenak.

-Algorri (Zumaia)-Elgoibar Ikastola 6.

-Haztegi (Legazpi)-Udarregi 6.

■ 11:00 Alebin nesken Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa: beste bi final laurdenak:

-Txantxiku 6A (Oñati)-Zuaisti (Ordizia).

-Bizarrain (Erreterria)-Aitor Ikastola (Donostia).

■ 12:30 Infantil mutilak,

Gipuzkoako Txapelketa:

Udarregi D Usurbil-Ereintza.

Maiatzak 28, igandea

■ 11:30 Kadete neskek,

Gipuzkoako Kopa:

Usurbil K.E.-Aloña Mendi.

Eskubaloia, selekzioa

Maiatzak 28, igandea

■ 16:00 Gipuzkoako kadete mutilen selekzioaren entrenamendua, Donostiako La Salle Kiroldegian. Eneko Furundarena deitu dute hitzordura.

■ 18:00 Gipuzkoako jubenil mutilen selekzioaren entrenamendua, Donostiako La Salle kiroldegian. Eneko Iribar, Joseba Errazkin eta Julen Nazabal deitu dituzte hitzordura.

Negu partean palaz, uda partean esku-pilotan

NOAUA! Epe motzean, ze hitzordu dituzu?

Miriam Arrillaga Beloki: Negu partean palaz aritzen gara. Orain uda partean gehien jokatzen dena esku pilotan izaten da. Jaietatik deitzen digute eta jokatzerara joaten gara. Oso polita izaten da, jende asko hurbiltzen da frontoira ikustera. Trinketeetan jokatzen ere hasi naiz.

Zer moduzkoa da frontoira gerturatzeko den publikoa?

Gehienez gurasoak eta lagunak izaten dira. Hor egoten

dira, animatzera doaz eta horrek aurrera segitzen laguntzen du. Ilusio handia ematen du.

Usurbilgo Pala Txapelketan ere ikusiko zaitugu.

Aurten behintzat nahiko jendeak izena eman dugu. Sei bikote apuntatu gara aurten.

Zer bide jorratzea nahi zenuke etorkizunean?

Aurrerantz joatea nahi nuke. Mundialak ere hor daude. Niretzat amets bat izango litzateke mundialetan jokatzea.



Miriam Arrillaga eta Leire Galdos, Euskal Herriko Pala Txapelketako irabazleak.

Zubietan hasi zenuen ibilbidea. Nola ikusten duzu bertan, pilota, errebotea...?

Atzetik jendea dagoela ikusita, badago etorkizuna.

Ekainaren 11n, Erratzu-Etxalar mendi irteera

Urte hasieratik mendizaleak osatzen ari diren Bidasoako Kontrabandistak ibilbideko seigarren etapa, azken aurrekoa, ekainaren 11rako iragarri du Andatza M.K.T.-k. Erratzu-Etxalar artekoa:

■ Abiatzeko hitzordua: 07:30etan autobusez, Oiardo Kiroldegitik.

■ Ibilbidea: Erratzu-Etxalar, 23 kilometro (Bidasoako Kontrabandistak ibilbideko seigarren etapa).

■ Izen ematea: 10 euro, ekainaren 7a baino lehen, kontu zenbakiotako batean:

Rural Kutxa: 300802591630 05430321
Kutxabank: 20955069071068489805

■ Oharrak:

-Plaza mugatuak.

-Otordua: ibilbidea amaitutakoan. Janaria norberak eramane beharko du. Edaria Andatza M.K.T.-k eramango du.

-Andatza M.K.T.-k antolaturiko irteeretan parte hartzeko derri gorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea. "Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin



Maiatzaren 13ko astebukaeran, Ereñozu-Lesaka-Senpere mendi irteera osatu zuten.

IRAILEAN, BENASQUERA

"Irailaren 9 eta 10eko asteburuan Benasque ingurura antolatuta irteerarako izen emateak zabalik segitzen du"

jarri harremanetan andatza@hotmail.com helbidean".

■ Informazio gehiago: andatza.com

■ Antolatzailea: Andatza M.K.T.

Pirinioetako asteburu pasa

Irailaren 9 eta 10eko asteburuan Benasque ingurura

antolatuta irteerarako izen emateak zabalik segitzen du. Eriste herritik Angel Oris aterpera abiatu eta handik Posets gailurreraino igoko dira mendizaleak.

■ Prezioak:

-Andatzako bazkideek: 36 euro FEDME gehigarria dutenak; 45 euro ez dutenak.

-Andatzako bazkide ez direnek: 61 euro FEDME gehigarria dutenak; 70 euro ez dutenak.

Ordainketak, kontu zenbakiotako batean:

Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321

Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805

Informazio gehiago eta hartuemanetarako:

andatza.com

andatza@hotmail.com

Kadete mutilak, Espainiako Sektorean hirugarren

3. postuan sailkatu dira Usurbil K.E.-ko kadete mutilak, asteburuan Elxen jokatu duten Espainiako Sektorean.

Alebinen Gipuzkoako Txapelketako final laurdenak

Larunbat honetan, hilak 27, 12:00etan hasita Bidebieta Kiroldegian, Oñatiko Txantxiku 6B taldearekin lehiatuko da Udarregi 6 mutilen alebin taldea. Neska alebinen Udarregi 6 taldea aldiz, larunbat goizeko 09:30ean lehiatuko da Oiardo Kiroldegian, Legazpiko Haztegiren aurka. Gipuzkoako alebin mutil zein nesken eskubaloi txapelketako azken fasea Oiardo Kiroldegian jokatuko da; finalerdiak ekainaren 3an eta finalak ekainaren 4an.

Usurbil Cup-en izen ematea zabalik

Usurbil F.T.-k irailerako antolatu duen kirol ekimenean parte hartzeko izen ematea zabalik izango da ekainaren 2ra arte. Izen emate orriak, Oiardo Kiroldegian jaso eta utzi beharko dituzte taldeek.

Zubietak etxean irabazi

Euskal Herriko errebote txapelketako neurketa jokatuz Zubietak joan den igandean. 13-6 irabazi zioten Donapaleuko Amiluze taldeari. Hurrengo neurketa, igande honetan, maiatzaren 28an jokatuko dute Hazpamen.




Hurrengo neurketa, igande honetan Hazpamen.

Euskal eskubaloi jokalarari onenen artean

Euskal Eskubaloi Federazioak maila ezberdinetako 2016-17 denboraldiko euskal jokalarari onenak saritu nahi ditu. Horretarako, bere web orrian merezimendu hau jasotzeko hautagaien zerrenda argitaratu du.

Jokalarari onenen saria jasotzeko hautagaien artean, lau usurbildar ditugu:

■ Infantil mailan: Eneko Furun-



Usurbildar kirolarion alde bozka dezakezue helbide honetan: <http://fvascabm.com/encuesta.asp>

darena (Usurbil K.E.).

■ Kadete mailan: Julen Nazabal (Usurbil K.E.)

■ Jubenil mailan: Estitxu Bera-

sategi (Bera Beran orain, gabonak arte Usurbil K.E.-n)

■ Senior mailan: Lur Errekondo (Bera Bera).

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 2.000 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berriua. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegaldien. Alperboru Ban. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berriua, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekileku,

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Alokairuan

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila

nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariek eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

MOTORRA

Salmenta,

garaiek

120 metro² lokal bat salgai. Alperburu 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrena 10ean. 620024663

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daitezke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsua. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari bat behar da kafetegi batean lan egiteko. Asteazkenean zehar egun bat eta asteburutan. Bidali kurrikulum-a posta kutxa 16 zenbakira 20170.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarreraren altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Euskal filologa naiz, eta euskarazko klaseak ematen ditut maila guztientzat. Mondragon Unibertsitateko masterra dut irakas-kuntzan. Tel. 638 917 714

Lan bila nabil. Orduka, gauean... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelheenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauean... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketara lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketara lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gauz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro². 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketara egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldarean ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo



Zorionak Aimar!

Maiatzaren 23an 7 urte bete dituzu. Muxu handi bat aita eta amaren partez!!



Zorionak Maren!

Maiatzaren 29an 3 urte beteko dituzu. Irribarre polit horrekin ospa dezazula. Muxu handi bat etxeko partez.



Zorionak Naiara!!!

Gure etxeko txikiak, 6 urte bete ditu maiatzaren 20an. Primeran ospatu genuen zure egunaaaa... Txoko marrubizko 6 muxu, lera eta familia osoaren partez.

OHARRA: 2017ko ekainaren 2an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: maiatzaren 29an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxe lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritze-ko, ... 688 642 835 / 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxe zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jate- bategan harraskan aritzeko edo

pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketak. Deitu edo bidali me-

zua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, irailatik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil

pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel.

673 256 566.

Etxe etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guttiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluekin. 666 798 804.

BESTELAKOAK

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz bategan. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituen. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoa entregatzea.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosi nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Katuak oparitzen ditugu Donostia elkarten. 633 273 747 / 605 730 115

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuek... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 25	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 26	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 27	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 28	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Astelehena 29	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteartea 30	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 31	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Maiatzak 25 - ekainak 04

Osteguna 01	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Ostirala 02	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Larunbata 03	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 04	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda maiatza

26 ostirala

- **Clown saioa: "Portaera egokia hondartzan"** 17:30ean Bihurri Ludotekan.
- **Udaberri Festa Zubietan** ikus 8. orrialdea.
- **Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko Elkarretaratzea** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

27 larunbata

- **Erraustegiaren Aurkako Eguna Zubietan.** Ikus 10. orrialdea.
- **Muxurbil, ikasturte amaierako emanaldia** 12:00etan Sutegin.
- **Erakusketa Artzabalen.** Inner Galaktiken margolanak.

28 igandea

- **Erakusketa Artzabalen.** Inner Galaktiken margolanak.

Jai Batzordearen bilera berri bat

Usurbilgo jaietan danborra jotzen kalejiran irten nahi baduzu, ekainaren 14an abiatuko dituzte entsegu saioak Udarregi Ikastolako frontoian. Egun horretatik, astelehen, asteazken eta ostiralero bilduko dira, 20:00-21:00 artean. Festetako danborrada saioa berriz, uztailaren lehenean, larunbatez ospatuko da, 19:00-21:30 artean.

Bilera ostegunean

Usurbilgo jaien antolaketa lanak azken txanpan dira. Ostegun honetan, maiatzaren 25ean bilduko da Jai Batzordea 18:00etan Potxoenean. Bilera irekia izango da, herritar nahiz eragileentzat.

Kantu-jirarik ez larunbat honetan

Usurbilgo Kantu Taldekoak Gasteizera doaz autobusez larunbat honetan, maiatzak 27, Arabako hiriburuan ospatuko den Euskal Herrian Kantuz ekimenean parte hartzera. Honenbestez, Usurbilen ez da ospatuko hileroko ohiko kantu-jira.



Ekainaren 14an hasiko dira danborradako entseguak.

Bestetik, egunotan emango dute jaietako egitarau lehiaketako irabazlearen berri, eta baita txupinazoa jaurtiko duen hautagaiaren izena ere.

Ostiral honetan, clown saioa ludotekan

"Portaera egokia hondartzan" ikuskizuna antolatu du Bihurri Ludotekak, ostiral honetan 17:30ean ludotekan bertan. 3-4-5 urteko umeei beren eta gainerako erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko hondartzan izan behar duten portaera zuzena transmititu nahi zaie.

Datozenak

Erakusketa berria

Artzabalen

Inner Galaktik ezizenarekin lan egiten duen Sara Kovacic Esloveniako artistaren lan bilduma ezagutzeko aukera izango dugu Artzabalen hilabetez, maiatzaren 22tik ekainaren 22ra.

Sagastiak Loretan

"Sagastien udako kimaketa" ikastaroa

- Ekainak 3, larunbata. 09:00-13:00.
- "Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak", Aitor Etxeandiaren eskutik.

■ Izen ematea: 943 361 114
alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus

Dastaketa Zumeta Estudioan

- Ekainak 6, asteartea, 19:00etan.
- Zumeta Arte Estudioan: "Euskal Sagardea" Jatorrizko Izendapen berriko sagardoaren aurkezpena eta Zumeta margolariaren erakusketaren irekiera: -Aurkezpena. -Sagardea dastaketa eta mokadutxoak.
- Unai Agirre, Izendapeneko teknikariaren eskutik. Jose Luis Zumetaren lanen erakusketa ikusgai izango da.
- Oharra: Kotxez ezingo da bertaratu. Autobus zerbitzua izango da Kaxkotik.

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Edertu zaitez!

INDIBA

DEEP BEAUTY

PROFESIONAL BODY CARE SYSTEM

DESKONTU BEREZIAK

• ZELULEN BIRSORTZEA • LIPOLISISA • MODELAKETA • ERREAFIRMAZIOA
• AZALAREN TONIFIKAZIOA • OXIGENAZIOA • HIDRATAZIOA • LIFTING

✓ ZELLULITAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZIMURREN LEUNKETA
✓ BULARRAREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILUETAREN HOBEKUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

Inar
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK: PRESOTERAPIA TERMOLINEA ELEKTROKINETIKA MASAJETERAPIA

Munalurra 2, USURBIL 943 57 16 80

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

MAIATZEKO ESKAINTZA

GARBIKETA ETA HIDRATAZIOA:
LEHEN 30€ ORAIN 25€

**ADINAREN AURKAKO
TRATAMENDU BEREZIA:**
LEHEN 40€ ORAIN 35€

AURPEGIKO GARBIKETA: 20€

**424 SAKONEKO NUTRIZIO
ZELULARRA:**
LEHEN 50€ ORAIN 40€

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan irekial
Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 626 603 600



Elepe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

TXANPU ETA LOZIO BITAMINADUNA
Eskola adinerako berezia

- Iturburuko ur mineralarekin
- Kontsarbagarririk gabea
- Belaunaldi berriko formula:
Te arborez, "Neem"-ez, Kamamila
destilatuz eta Bisabobolez indartua

GOLDWELL
ELUMEN

mistoa

Zorrien aurkako lozio
ORGANIKOA
KUNDA

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951

BIOTERRA

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

2 · 3 · 4

Ekaina
FICOBA
IRUN



Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak
Bioeraikuntza eta efizientzia energetikoa
Osasun eta ongizate jasangarria
Yoga day
Bioterraza

Biobeauty Gunea
Show cooking
Haurrentzako aktibitateak
Zozketak...

bioterra.ficoba.org

Gonbidapen hau moztu eta azokaren sarreran aurkeztu

BIO
TERRA
2017

14. EDIZIOA

GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte doan)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

2 · 3 · 4

Ekaina
FICOBA
IRUN

Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak • Bioeraikuntza eta efizientzia energetikoa • Osasun eta ongizate jasangarria • Yoga day • Bioterraza • Biobeauty Gunea • Show cooking • Haurrentzako aktibitateak • Zozketak...

EKO ESPERIENTZIA
BIZI EZAZU!

bioterra.ficoba.org



ANTOLATZAILEA

